

Ar itzazu biotzetik  
baltzen dizkizudan  
zoriaak  
J. Miande

Monzon. Glaso'neko T. Jaunari  
Paris' tik  
1948 ko otsailak . 18

Adiskide maitea,

Astebete ba du gaur iritxi zaitala zurea. Bai poztu nauala ene letrari ain laster erantzuna izateak!

Diozu nai zendukela jakin zer ikasten ta egiten ari naizen, eta zer asmoetan nabillen: emengo Dirutza-Burukidetzean ari naiz lanean, azken lau urte ontan. Ez dezaket esan lan atsegin bat dala, ba ordean aspergari ... Denbora ez galtzeko jarraitzen diot ikasteari, bereziki izkuntz-ikasteari, ingelera, espanera, eta orain, guzien gañetik, euskera.

Gure izkuntza ikasten ibiltzen naiz Paris'ko Euzko-Ordezkaritzean; Lapurdi'ko izkeltzia digute irakasten, eta ikasten detan pixka ontzen ta geitzen det lagun "manex" batzuekin ibilliz (orela Zuberotararak derizaiotegu Lapurtar ta Be. Nabarrei)

Garasoak Euskaldun garbiak ditut, ~~eta~~ banan Euzkadi'ko aita-ama geiegi bezela, ez zidaten euskera irakasi. Orain alare, aiekin zuberocera ikasten asia naiz

Bańan ene iritziz, onura aundia litzake Euzkotar guziok euskera bat bakaria erabiltzea, ta uste det egokiena giputzera litzakela, beste euskalkiai artutako itz ta esakera zenbait ari josita. Ongi ikasi nai nuke, zail zait ordea Gipuzkoar gutxi ezagutzen ditudalako, eta liburuetan baizik ez bai dezaket estudiatu. Laguntza aundia demadate Lopez-Mendizabal'en iztiak ta ikasbideak gai ontan.

Bai, inoiz Paris'era etortzen ba zera, dei egin zaidazu, edo ene etxera gatz: zure ezaguera abseginekin egin nezake, mintzaldi luze bat gurekin izateko Euzkadi'z ta euskerataz.

Ni ere zure iritzekoa naiz, osoki: euskera gabeko abertzaletasuna gorroheri utsa dala, ta ezer ez busterik! Eorituraz, zenbat Euzkotariak-naiz beren buruak abertzaleak deitzen - beti erderaz mintzo dira, baquetan euskera ondo jakin arren. Oñelako makinãa bat ezagutu ditut emen Paris'en.

Alare ez det itxaropena galtzen, eta ziur naiz azkatasuna ta berjabetzea lortu ezkers, euskal. ikastolen bidez, geure ele zarãa gairkatua izango dala.

Naiz muga alde ontakoa, abertzale sutsua naiz ni ere, eta ez det aritzen uztaria ~~ni~~ begi onz ikusten geure aberri lastanean. Zerbait nai nuke egin Euzkadi'ren alde, bańan ez dakit zola...  
|| Orain berean etorri zait Jean Loustau'k bialitako letra bat. Pozik irakurri det, eta ziurki, bereala erantzungo diot. Eskerrik asho, jauna, ene zuzenbidea igori diozulako!